

Akta zenbakia: 9/2019, bagilaren 15ekoa.  
E.E.- z/g

UDALAREN OSOKO BILKURAK 2019ko BAGILAREN 15ean EGIN DAUAN EZ-OHIKO BILERA.

49.- 2019KO LORAILAREN 26KO UDAL HAUTESKUNDEAK ETA GERO 2019-2023  
LEGEGINTZALDIRAKO LARRABETZUKO UDALBATZA BERRIA ERATU ETA ALKATEA  
AUKERATU, BIDEZKOA BADA.

Larrabetzuko Udaletxeko osoko bilkuretarako aretoan, bi mila eta hemeretziko bagilaren hamabostean, goizeko hamar eta erdietan, lehenengo deialdian, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren (hemendik aurrera HAOLO) 195. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia Onartu zuen 2568/1986 Errege Dekretuaren (hemendik aurrera AFA) 37. artikuluan ezarritakoa betez, Udala eta bere Udalbatza eratzeko batzarra egitearren, jarraian aipatuko diren zinegotziak bertaratu dira. Hautatutako zinegotziek aurretik egiaztatutako aurkeztu dituzte, nortasuna egiaztatu dute eta beharrezko aitortpenak egin dituzte, Udal Interesen erregistroan inskribatuko direlarik.

#### BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

IÑIGO GAZTELU BILBAO jn.  
MIREN BAKENE AGIRRE BUJANDA and.  
IGOR ELORDUI ETXEBARRIA jn.  
LEIRE ETXEBARRIA GAZTELU and.  
MADDI SAN MIGUEL ALKORTA and.  
ITXASO SAN ROMAN AIARTZA and.  
NAIA MADARIAGA GARTZIA and.  
MIGUEL ANGEL GAZTELU BARRENA jn.  
ESTIBALIZ BOLUNBURU GARCÍA and.  
BORJA RAMIREZ ETXEBARRIA jn.  
JOSE MARTIN HORMAETXE IZAGIRRE jn.

Adineko mahaia eratu da, Miguel Angel Gaztelu Barrena jaunak (zinegotzi nagusia) eta Leire Etxebarria Gaztelu andreak (zinegotzi gazteena) osatuta. Mahaiaren presidentea, zinegotzi nagusia izango da eta Idazkaria Udalaren Idazkaria, Ortzi de la Quintana Ibañez jauna. Mahaiak zinegotzien gehiengo osoa bertaratu dela egiaztatu du eta bertaratutako zinegotzi guztiek jorrailaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako betebeharrak bete ostean, Mahaiak Udala eta Udalbatza legez eratu direla adierazten du. Zinegotzi guztiek adierazten dute kargua legeak behartuta onartzen dutela.

Udalbatza behar bezala eratuta dagoelarik HAOLOren 196. artikuluari jarraituz EH Bilduko zerrendaburuak eta EAJ-PNVko zerrendaburuak alkategai izateko izendatu dira: IÑIGO GAZTELU BILBAO, EH Bilduko hautagaia eta MIGUEL ANGEL GAZTELU BARRENA EAJ-PNVko hautagaia.

Adineko mahaiko presidentek, Alkate-Udalburua aukeratzeko prozedurari hasiera ematen dio eta bera hautagaia den aldetik hautagai izateari uko egiten dio, bere beste taldekideekin batera. Hau horrela, bozketan EH Bilduko hautagaia baino ez da geratu. Ondoren, zinegotzi guztiek boto sekretuaren bitartez botoa eman dute emaitza hurrengo delarik: EH Bildu hautagaia den IÑIGO GAZTELU BILBAO jaunaren alde 7 boto eta 4 abstentzio.

Ondorioz, 11 zinegotzi direnez eta legezko gehiengo osoa lortuta IÑIGO GAZTELU BILBAO jauna izan da aukeratua. Mahaiaren presidentek kargua onartzen duen ala ez galdetzen dio eta honek baietz erantzuten du. Karguaz berehala jabetu da 707/1979 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrak legeak behartuta egin eta gero.

IÑIGO GAZTELU BILBAO jaunak, Alkate-Udalburu bezala, hitza hartzen du eta honako hau adierazten du:

*"Egun on:*

*Lehenengo eta behin, gure agurrik beroena azkenengo 4 urteetan Larrabetzuko udalean zinegotzi ibili diren zinegotzi guztiei eta beriziki datozen lau urteetan ez direzenak egongo: EUNATE, PATXI, ISABEL, ARANTZA, , ARRATE, JOSEBA, ESTI, ANA eta MARIA LUISA... egindako lanagaitik, denontzat besarkada bero bat. Eskerrik asko denoi.*

*Eta orain ondo etorri udal talde barriari: MARIPI, LEIRE, MADDI, IGOR, ITXASO, NAIA, MIGUEL ANGEL, TXINGU, ESTI eta JUAN MARTIN. Hemen, udaletxean, batera lanean ibiliko gara.*

*Alkate bezala eskerrak eman nahi deuseguz babesa eman deuskuen herritarrei. Baita, beste aukera batzuk hautatuz herriaren hobereana desio daben herritar guztiei ere. ESKERRIK ASKO. Euskal Herria Bilduk kanpainan esan eban bezala, guretzat herritarrek protagonistak izaten jarraituko dabe. Herritarraz batera Larrabetzu gara. Eta kanpainan esandakoa beteko dogu. Herritar guztien alde lan egiteko konpromisoa berresten dogu, eta konpromiso bera eskatuko deusiet udala osatzen daben zinegotzi guztiei. Izan be, udaletxeak herriko etxea izan behar dau. Gaur, datozen lau urteei begirako bide barri bat hasten dau Udal honek eta zutabe nagusiak honek izango dira:*

- Udala herritarrena da eta parte hartzeari bideak irekitzen jarraituko dogu.*
- Azkenengo zortzi urteetan bezala, gardentasuna aldarrikatu eta gauzatuko dogu.*
- Euskal herritar guztien eskubide sozialak doguz lehentasun. Horregatik, EHBILDUrentzat, herritar guztien ongizateak instituzio ororen politika publikoen erdigunea izan behar dau.*
- Erabakitzeko eskubidearen alde lan egingo dogu erakundearen zein kaleko eragileekaz, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarren eskuetan egon daiten.*

*Beste alde batetik ezin doguz ahaztu LARRABETZUKO errepresaliatuak. Hemendik gure besarkada eurentzat eta euren senideentzat. Benetako bakea lortzeko Euskal Herriko errepresaliatuen arazoa konpondu behar dogu eta Larrabetzuko Udaletik honen alde lan egingo dogu*

*Amaitzeko, ohore bat da LARRABETZUKO ALKATEA IZATEA ETA PERTSONALKI AHALEGIN GUZTIAK EGINGO DODAZ LARRABETZUKO HERRITAR GUZTIEN GOBERNU BATEN ALDE."*

Parte hartzeak amaitu eta gero, IÑIGO GAZTELU BILBAO Alkate-Udalburuak osoko bilkura amaitutzat eman du goizeko hamarrak eta berrogeita bost minutu direnean. Horren guztiaren gaineko akta egin dut eta bertaratutakoek nirekin batera sinatu dute, eta nik Idazkariak, ziurtatu dut.